

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, bestek beste, honako erabaki hau hartu zuen:

KARABELEKO ELKARTEARI ZUZENEGO DIRU LAGUNTZA EMATEA.

Karabeleko etxaldea Hernaniko Portu auzoan aurkitzen da eta 25000m²ko laborantza ekologikoko eremua du, herritar ororentzat zein sektoreko profesionalentzat irekia dagoen proiektua izanik.

Baratze hauetan modu ekologikoan gure nekazaritzan berriak diren barazki barietate anitzak lantzen dituzte beti nekazaritza ekologikoaren irizpide legal eta filosofikoak kontuan izanik. Hau dena lehen sektore berritzaile eta iraunkor bat sustatu asmoz.

Beste alde batetik buru osasun arazoak dituzten pertsonak eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden bestelako kolektiboentzako errehabilitatzeko zentro psikosoziala da. Honela asteen zehar buru osasun arazoak dituzten 30 lagun joaten dira errehabilitazio taldera eta lan munduratzeko aukerak eskaintzen zaizkie. Honez gain Hernaniko beste hainbat eragilerekin harremanak mantentzen ditu elkarlanerako esaterako AHMER eta elikagai bankuarekin.

Gainera aipatzekoa da ere gizarte eraldaketa sustatu asmoz sustatzen ari diren lurralde inpaktua garatzen ari diren lan ildo ezberdinen bidez, esaterako hitzaldi, azoka eta komunikabideetan produkzio ekologiko eta buru osasun arazoei buruz sentsibilizatzen.

Baina baita eskualdeko errestituzioaren sentsibilizazioa bultzatzen edota norbanakoen ikusmoldea aldatzen.

Azkenik, bazterkeria egoeran daude pertsonentzako sortu berri duten Enplegu Zentro Bereziak ekarpen handia egiten dio herriko enpleguratzeko baliabideen eskaintzari, eta aukera handiak eskaintzen ditu berezitasun jakin batzuk dituzten pertsonak laneratu eta gizarteratu ahal izateko. Horrela, 2023an burutu zen Nekazaritza Eskolako lehenengo edizioko bi kideri laneratzeko aukera eskaini diote, eta helburua da, urtero 1go sektorean formatuta ateratzen diren pertsonen laneratzeko eta gizarteratzeko aukera eskaintzea da helburua.

Honela elkarte honek buru osasun arazoak dituzten pertsonen errehabilitazio eta lan munduratzeko batetik eta nekazaritza ekologikoko ikerketa bestetik bi bereizgarri bakarrak ditu elkarte honek bai Hernani mailan baina baita Gipuzkoa mailan ere. Horregatik elkarte honen izaera bakarra medio deialdi publiko ireki bat ez burutzea erabaki da.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen batzordeak, 2024ko martxoaren 14an egindako ohiko bileran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela **Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du**

Lehena.- Diru laguntza zuzena emateko Hernaniko Udala eta Karabeleko elkartearen arteko diru laguntza hitzarmena onartzea
Onuraduna; Karabel elkartea
Diru Kopurua 15.000
Aurrekontuko partida 02.481.03.231.09.2024 Kopurua: 15.000,- (AD-364/2024).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorriz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko martxoaren 21ean

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKUbf5f65b7-5157-4ae8-b30e-e544c0048dc1**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>